

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

115n. Zenbakia Urterilla  
1988



## BILBO

- BULTZIAK ARGITARA
- KANPOTARRAK GUGANA
- GUTARRAK KANPOETARA
- MUNDU BAT GARA

# KULTUR ETXEA - ONDARROA

## IDAIZ SARIKETA

*Gaia:* **ONDARROA AZTERTZEN ETA AIZETZEN**

**Edozein idazlek esku artu leike.**

*Lanen neurria:* Gitxienez 30 folio, makinaz idatzita, lerro biko tartegaz.

*Lanak agertzeko epea:* Apirilla'ren 15 gna.

*biiltzeko era:* Lan bakoitzeko tau kopia bialdu bear ko dira, lema bategaz, eta beste karta azal baten bakoitzaren izen eta ezaugarriak.

*Lanen egokitasuna:* Lanak sortuak izan bear dira, ez beste izkuntzetatik itzuliak eta osotasunean beintzat argitaratu bakoak.

*Lanen jaubetasuna:* Saritutako lanen jaubetasuna egille bakoitzarena izango da. Alaz eta Kultur Etxeak askatasuna eukiko dau deritxoan lanak osorik edo laburpen zintzoan argitaratzeko, egillearen izen jatorra erabiliaz.

*Epai maia :* Epai maia Kultur Etxeak izendatuko dau eta here erabagia gora jo eziña izango da. Epai-maiak eskubidea eukiko dau, sariak erdi-banatu edo ta lanen araberan jator deritxon erabide bat artzeko.

**SARIAK:** 1. 100.000 peseta      3. 40.000 peseta  
2. 60.000 peseta            4. 25.000 peseta

*Sari banaketa:* Ekainilla'ko lenengo amabostaldian egingo da.

**GAIA:** Kultur Etxeak, argibide lez, egoki izango litzakezan gai batzun zerrenda agertzen dau. Zerrenda onek ez dau esan nai bearrezko izango dala euretako bat aukeratzea. Beste edozein erabili lei, beti be Ondarroa eta bertako bizitzari eta izateari ikutu ezkeru.

### ARGIBIDEA:

**Musikalariak:** Pedro Mari Unanue; Usobiagatarrak; Silvestre Arrate, Ondarroa'ko organistak.

**Artistak:** Benito Bikandi, Antonio Lckuona (Tolosarra izanarren, Ondarroa'gaz zer ikusi aundia euki ta bertan obiratuta dago) Pelotariak.

**Letradunak:** Martin Likona (Doctor Ondarroa); Antonio San Martin Burgoa ("El Cura de Ondarroa"); Txomin Agirre...

*Osotasun baten :* Ondarroa eta here margolari eta zabaldua dagozan laukien agerbideak. Ondarroa'ri bibliografia; Ondarroa'ko bertsolari zarrak...

*Itxas-bizitza :* Arrantza gizaldien zear, arrain egitura eta merkataritza txalopagintza.

**Eta, len esan lez, beste edozein gai.**

## JAN ETA JATEKO, BIGARREN SARIKETA

Arraiñak edo ta arraiñak ta itxaskiak barruan daroezan janariak gertuteko adierazgari edo errezetak.

Amarna edo seinako saillik egokienak sarituko dira.

Edozein arrain mota erabili leiteke, baiña arraiñik merkeenak obeto ikusiak izango dira.

Ez da onartuko 1986'ko sariketan sarituta lez agertutako bardiñik, ez eta Sukaldaritzako liburuetan osotasun baten agertzen danik.

Errezeta bakoitzak bereiztu egin bear ko dau zenbat laguntzako gertapenerako dan. Egokienak sei edo amar laguntzakoak izanarren, besteak be onartuko dira.

Argi zeaztu bear ko da arraiñaren kopuru edo kantidadea; geigarriak zeintzuk eta zenbat erabilten diran eta gertuteko denpora.

Bakoitzak amarreko sail bat edo seinako bat baiño geiago aurkeztu leikez, eta gura izan ezkeru sail bakoitzean amar baiño geiago be bai, baiña epaikariak amar onenak kontuan artuta emongo dabe sail bakoitzeko erabagia.

Lanak biiltzeko epea 1988'ko Urtarrilla-ren 31 amaituko da eta erabagia Otsailla'ren azkenetan emongo da.

**KULTUR ETXEA** arduratuko da saritutako lanak liburu baten argitaratzen, eskubideak bere kontu geratzen dirala.

Sail bakoitzeko iru kopia agertuko dira, izenpetu barik, sail bakoitzari deitura berezi bat emonaz, eta deitura orren jaubea nor dan kartazal baten barruan, sarratuta, ipiñiko da.

### SARIAK

Amarnako saillentzat	Seiñako saillentzat
15.000 pesetako sari bi	10.000 pesetako sari bi
10.000 pesetako iru sari	6.000 pesetako iru sari
5.000 pesetako iru sari	3.000 pesetako iru sari

## BARRE TA IIRI IDAZ SARIKETA

Ipuin, kontakizun edo gertaera barregarri ta irrigarrien lanak. Txistek eta abar. Al dala Ondarroa edo ta ingurukoak.

Makinaz idatziak, lerro biko tartea itxita.

Bakoitzak nai aiña lan agertu leikez, baiña leiaketa sailkatuta dagon sail bakoitzean pertsona bakoitzari sari bakarra emon leikio.

Lanak neurri ez bardiñetakoak izan leitekez, eta neurri bakoitzean kontakizun hakarra edo ugari sartu.

Lana iru sailletan banatuko dira.

*4 edo 5 foliotik gorakoak:*

1 saria: 30.000 peseta	3 sari: 15.000 peseta
2 saria: 20.000 peseta	4 saria: 10.000 peseta

*2 edo 3 foliodunak:*

1 saria: 15.000 peseta	3 saria: 8.000 peseta
2 saria: 12.000 peseta	4 saria: 5.000 peseta

*Folio 2'tik berakoak:*

1 saria: 10.000 peseta	3 saria: 5.000 peseta
2 saria: 5.000 peseta	4 saria: 5.000 peseta

Lanak, iru kopian agertuko dira, izenpetu barik, lan bakoitzari bere "lema" edo ezaugarria ipiniaz, eta deitura orren jaubea nor dan kartazal baten barruan, sarratuta, ipiniko da.

Lanak agertzeko epea: 1988'ko Urtarrilla'ren 31.

Erabagia Otsailla'ren azkenetan emongo da.

Epai-maikoak, ala iritzi ezkeru, sariak emon barik itxiteko eskubidea eukiko dabe edo ta egoki deritxoan eran banatu. Euren erabagia ontzat artu bearrekoa izango da.

Saritutako lanak noz-nai argitaratzeko eskubidea eukiko dau Kultur Etxeak, eskubideak bere kontura geratzen dirala.

## URTE BARRIAN ZER?

### ZORIONA

Asi dogu urte barria: 1988. Gure lankide ta irakurle guztiai zoriona opa dautsegu urte barri onetan.

Igarle-lana egin eta urte onetan zer jazoko dan, gauzak zelan joango diran, jakin nai genduke, baiña igarle-lana arriskugarria da beti.

Dana dala, geure errian eta mundu zabalean gaur jazoten diranak artu eta aztertu dagizuzan pizka bat. Ez ete dira aldien ezaugarriak?

\* \* \*

### ETA'GAZ ALKAR-IZKETAK

Olako artu-emonak isillean eroaten dira aurrera, baiña sarritan albotik jakiten danetik, susmoa artzen da zer jazoten dan.

ETA'k ekiñaldi gogor batzuk egin ebazan eta gero isillaldi naikoa luze bat izan da, baiña zori txarrez idaz-lan au idazten diardugun aldi egun baten barruan iru ekintza bete dauz, guztiak mingarriak, baiña batez be sei ume eta bost norki eldu eriotzara eroan dauzan Zaragoza'koa.

Ekiñaldia, geldialdia eta ekiñaldia... Geldi orretan, zalantza barik, alkar izketak izan dira, baiña elburu onik ikusten izan ez dan lez, barriri ekiñaldira sartu. Tamalgarria berbaz alkar ulertu eziña! Tamalgarria era batera naiz bestera, erriari zor jakozan eskubideak oso-osoan ez emotea!

Zer ekarriko ete dau urte barriak arlo onetan? Gaurko iru jazokizun mingarri oneik ez dabe itxaropenerako bide zabalik erakusten. Izubideak aurrera jarraituko dau, zori txarrez, urte onetan.

\* \* \*

### DIRU-ETXEAK

Urtearen azkenetan agertu jaku Bankuak alkartu eta diru-etxe aundiagoak sortzeko jokabidea.

Gauza pozgarria antza dagoanez, orrelan Europa'ko beste Banku aundi batzuren parean lana egiteko, baiña alkartze orrek ez dau lortu ondorenik eta barriri jausita geratu da bide ori. Ba-diardue beste banku batzuk be bide orretara sartu-gurean, eta ori Europa'ra sartzeko bearrezko gauzea dan ezkeru, jokabide orrek urte barri onetan aurrera egingo daua uste dogu.

‡ ‡ ‡

### BOLTSEA

Azken-aldi onetan laterri-arteko boltseak be berakada ikaragarria izan dau. Ez da beti jakiten olako jazoki-

zunen benetako sustraiak non dagozan, baiña arazoa or daukagu: Dirudun batzuk euren buruak ilten, beste batzuk galtze ikaragarriak dabezela...

Baiña ez dago ikaratu-bearrik, boltseak beti aurkitzen dau bere bidea eta oraingo onetan be aurkituko dau.

\* \* \*

### IZKILLU-BIDEA

Beste ezaugarri pozezko bat, itxura baten Reegan'ek eta Korbaxof ek agertzen daben adiskidetasuna da. Urri-nerako txapliegu izkilludunak beintzat kendu dabez eta, naizta oinkada laburra izan, itxaropenerako bidea da.

Beste aide batetik Rusia'n aldakuntza batzuk egiten asi dira eta jarraitzeko gogoia ikusten da.

Pozbidea da ori be eta urte barri onetan orrek aurrera egingo dau, ekonomi-arazo sakonen eragiña dalako. Etorriko al dira ortik bakerako itxaropen eta oinkada ziurak.

\* \* \*

### BAKEAREN ITUNA

Eskalerriko alderdi politikoak batzarrak egiten diardue, bakerako bideak billatzeko, eta bakea entzute oneko gauzea dan ezkeru, iñok ezin esan ezetzik eta orregaitik bakearen itun ori egingo da, gogo ona agertuko da, baiña lortu bai ezer? Au beste ado bat da. Arlo onetan ez daukagu itxaropentsuak izateko oiñarri aundirik.

Dana dala, txalotzekoa da orretan lanean diarduen gizon argien alegiña eta elburuak lortu-gurea: zabalatasuna bear. Eta Naparroa? Urrindu egiten jaku.

\* \* \*

### DIRUA SENDOTZEA

Beste arrisku aundi bat izaten da, guztientzat kaltegarria diruak bere astuntasuna galtzea eta irabazi bardiñak izan arren be, eroasterako balioa urritzea.

Joan dan urtean alaitasuna sortu dau diru-arintze ori ia geldituta ikusteak eta orrek aurrera jarraituko daua uste dogu, eta ortik ondoren guztiz onak etorriko dira, batez be lanik-eza gelditzeko.

\* \* \*

### GOAZEN AURRERA

Nai ta nai ez aurrera egin bearrean gagoz, goazen ba aurrera gogotsu.

Or daukaguz begien aurrean arriskuak eta itxaropenak eta zati bat geure eskuan izango da erantzun ona emon eta arazoak bideratzea.

Urte barri on! Goazen aurera!

Azillaren 29'an, igandez, ospatu zan urteroko poesi-jai au. Asko etorri jataz itaunka, jai au udabarrian egin bear Iitzatekela-ta. Eta nik erantzun bardña, au da, udazkena beti be udabarria baiño eder, oparo ta kolorez bikaiñagoa dalako; itxaropena da udabarria, etortekoa danaren zer bait, baiña udazkena, orritan ez-ezik frututan be ugaria; lur-langilleari ereintzak baiño poz beteagoa dakartso udagoienean batzen dauan laboreak naiz igaliak.

Oler-lanari begira, au esan daikegu: or olerkari mor-doa udabarrian, itxaropenez gaiñezka bear bada. Zer ekarriko dauskue udazkenean? Asko? Gitxi? Ala ezer bez? Udazkenak itza. Larrako Oleri-Eguna azaroan jaitu oi dogu geien baten. Erabagita daukagu olantxe. Eta errazoiz ta ondo.

Frututan barriz ez izan dudarik. Udabarriz itxaropentsu agertzen zanak udazkenerako labore sorta ederra. Urtero lez aurtan be, frutua batzean otzarakada dexenteak, iru saillotan, lirikan, poematan eta bertso-mordotan. Leenengoan, iru eskukada, S. Muniategi'ren "Ametsak ume batentzat" jaso eban saria ta Anjel Bidaguren'en "Biziaren arian" (sei amalauko) deritxonak aipamena; onenak naiz arenak, bikain eta teknika osoz maminduak. Bigarrenean, Martin Ugarte'ren "Edestia aztertuaz"-ek irabazi eban leen-saria ta Agustin Beloki'ren "Erru gabeko zigortua"-k aipamena; biak Ian

sarigarriak: Ugarte'k batez be, bizi, sotil ta euskera berotan kantatzen dausku Gernika erre euskuenekoa. Irugarrenean, Agustin Beloki'ren "Belaunak belaunari" edo "Izotz ondorena"-k eroan euskun leen saria ta Paulin Solozabal'en "Artzain ona"-k aipamena. Guztira 27 poesi-lan artu genduzan. Udazken-frutuak, ugari, kolorezko ta ondo umotuak.

Axangiz'ko seme Aurre-Apraz ta Gernika'ko Anjel Bidaguren izan ziran, maiko egiñik, lanak ikusi, aztertu ta bakotxari berea emon eutsoenak.

Amaiak eta erdietako meza nagusi ostean egin genduan sari banaketa, onela: aztertzaileak aurretik aukeratutako lan sarigarriak, ezker geunkazala, sobre txikiak, sari-emoille, saritu ta enparau guztien aurrean, zabaldu ta, Ian saritzekoak zeintzuenak ziran jakiñik, bakotxari egokion saria eskuratu ta saritu bakotxak bere olerkia, luze naiz labur, irakurri edo kanta egin euskun. Eta, jakiña, txalo otsak, zelan uts-egin?

Ondoren, olerkiakiko alkar-izketa bero ostean, igaz erabagita geunkan omena N. Etxaniz jaunari, urte askotan, ia ogei urtetan emen izan genduan apaiz olerkari, musikalari, euskaltzale bikain-bikaiñari.

Datorren urterako beste bi, omen egiteko bi, Lemoa'ko seme J. B. Eguzkitza ta Donostiar Iñaki Olabeaga, aukeratu genduzan. Txalogarri da. Ziñez, merezi dauanari gorazarre egitea.

A. O.

#### AMETSAK UME BATENTZAT

Eskuakaz arrapatuko dogu illargia  
laztanduz aren aurpegi biribil zurbilla,  
an, izar artean, Jaunduriko gautaria,  
aldizka lurra dargizkun zerutar dizpilla.

Gau billutsez urduri ibilliko gara  
aizearen egoetan ta, gautegiaren goitiko,  
sorgindurazko zelai, itxas-arte, ikara,  
Jaungoikoak esku-zabal, maitez ereindakoz.

Ez daitezala ba, begiak, utsik gelditu,  
urrundi urrunean barrenduta, an, urrun,  
ez daitezala argi bako irudiz galdu  
leiza barruan sartuta itunkiro, illun.

Larrosak sortuko dira goiko zabal-dian  
lora usaintsu bitxi eder ta, aunitz asko,  
zoragarrizko dirdiramen ikusgarrian  
noranaira begiratu, biotzak alaitzeko.

Udabarriz sorturiko amets-iturriak,  
udaran gero, emoi ederrak burutzeko;  
lora zuri, gorritzko inguru gurgarriak,  
laztankiro gero, gogoz biotzeratzeko.

Munduko ondartzaz ondartz, ondarrrik ondar,  
umeak, bein eta barrero, olatuz olatu  
ibilliko dira zorakor ta, lilluratsu,  
irudimeneraturiko baztarrik baztar...

Bidatzi izan. Lau aizetako begiratzez  
biotza erein ta, eder orotara urbilduz  
biziari agur egin Egilleari abestuz  
gau-egun bakoitzarekiko goraberatzez.

Ainbesteko bizi-eratura argigarri  
edota, ainbat uda ta neguteren erdin,  
bizitza ez da beti maitezko ikurrin,  
uste dogun bezin onurakor agurgarri.

Bizitzan ota-lar, arantzak be, asko dagoz,  
gorrotozko guda, anai arteko ezbearrak;  
eztabaidazko irrintzi zoli, deadarrak,  
bakoitza bera nagosi izateko gogoz.

Ametsak ondoratzen dauzan itxas alorrean  
ni naroan ontzia, olatu arabera  
dabil, egunen atsegin edo nekepean,  
aizeen joan-etorritz, goizetik gabera.

Ta, olerkariak negar egingo dau negar  
baiña, malko bat itxasora isuriarren,  
zori onez ez da ez, olatupean galtzen,  
uretan dagozalako ainbat itxas-bedar.

Jausi dan negar malkoa, an, onik dakusgu  
itxas-bedar arrunt, orizka baten ganean,  
bildur ikarapean baiña, itxaropentsu  
oraindik, alako mirari baten aurrean.

S. MUNIATEGI

# ARRANTZALEEN OITURAK BIZKAIA'N

## (Kofradien azterketa bat)

### 0. SARREREA

Bizkai'ko arrantzaleen oiturei buruz berba egiteko esan dauste bizkaierearen aste onen eratzailleek, eta orixe berori da ondoren egingo doguna, geiagoko atonketa, aurkezpen eta antzeko ainkomainkoetan ibilli barik.

Baiña aurretik, orokorkeriaren besoetan jausteko arriskua urundu bear dogu gure ingurut; k, itzaldiaren neurriak al danik eta zeatzen mugatuz.

Arrazoi ulerterrez bategaitik diñogu au.

Bizkai'ko arrantzaleen oitura ta ekanduei buruz asterrakoan, eremu oso zabal bat jarten jaku begien aurrean; Gure azterketan, nundik asi ta norantz jo be ez dakigula jarten gaituan eremu zabal eta edatsu bat aurkezten jaku lan-egitarau-moduan.

Iru-lau argigarrigaz oartuko gara sendoago ta finkotago, diñogun eremu-zabaltasun onen garrantziagaz:

a) Bizkai'ko itsas-ertzak lauogeitaki ta amar kilimetrotako luzerea dauko gitxi gora-bera. Eta jakiña, Ur-lerro luze onetan zear aurkitzen doguzan portu guztietako arrantzaleak, ez dabez oitura bardin batzuk jarraitzen euren bizitzak eratu ta euren lanak aurrera ateratzera-koan. Ekandu-sustrai bakar bat dauke danak, egia da. Baiña batzuen eta besteen ekintzen artean, alako banatasun-kutsu bat susmatzen danik be, ezin geinke ukatu.

Euskerearen kontua jazoten dala emen esan lei. Oñarrrian izkuntza bardiña izan arren, Armintza'tarrak darabilen euskerea ta Ondarru'tarren agotik urtetzen dauana (lenengo bururutzen jakuzan adibide biak ipinteagaitik), ezbardiñak lez agertzen jakuz belarrira sarri askotan. Ba, modu ber-berean, portu batekoak eta beste-koak arrantza-arloan jarraitzen dabez oituren zuzatzak be, oñarrrian sustrai bardiñak izanik, amaika aide ta ezbardintasun agertzen dauz, zalantza barik, adar, beso, orri, ostoa ta frutu maillan.

Au ikusita, bereala datorgiku burura derriorezko itauna: Nun kokatu bear doguz gure begi?k, Bizkai'ko arrantzaleen oiturak azaltzerakoan? Armintza'n?, Ondarru'n?, ala bien bitartean dagozan portuetarikoan baten?

b) Geiago ondiño. Erri ezbardiñetako arrantzaleen artean agertzen jakuzanak ez-ezik, portu baten bertan, arrantza-mota ezbardiñetan inarduan dabilzan itsasgizonen artean be, noiz-gura ikusten doguz oitura mailako aldeak eta bestelakotasunak.

Ondarru'n, esaterako, bajurako arrantzaleak eta arrastretako lanetan dabilzanak, alkarren artean ia-ia zer-ikusirik be ez dauke oituren ikuspegitik begiratzen ba'doguz.

Ori kontuan izanik, nortzuengan finkatu bear dogu gure adimena oraingo onetan? Elantxobe'ko lebatzale, Bermeo'ko atunero ala Ondarru'ko arrastroengana?

d) Baiña or be, ez da eremua amaitzen. Guztiok jakiña danez, arrantzalea izatea ez da ogibide berezi bat eukitea bakarrik. Orrez ganera, itsasoaren inguruan sortzen dan misterio-kutsuzko mundu baten parte artzea be, ba da arrantzalea izatea.

Ondoren lez, arrantzalearen bizitzea, legorrekoean begien aurrean, arrigarriak, edo gitxienez, bereziak diran oituraz josita agertzen jaku.

Urrunago jo barik, or daukagu arrantzaleen oiturerik beñena, arrantza bera, orretarako erabilii oi diran sare, aparejo ta tresna ez-ezagun guztiekaz; Or daukaguz, bestalde, itsas-gizonen artean sortu diran siñiskera, siñiskeri ta, azken baten, mitolojilauki ezin-aberatsagoa; Or daukaguz, azkenez, gizaldietan zear gure arrantzaleek gogor eutsi daben lan eta gizarte-eraketa indartsu eraginkorak... Danak doguz arrantzale-oiturak, eta danak aztertzeke interesgarriak. Zeintzuk azaltzera zuzendu bear dogu gure lan au?

Agirian dagoanez, ba, ez gabilz oker edo txantxetan, Bizkai'ko arrantzaleen oiturei buruzko gaiak, eremu oso zabal bat osotzen dauala esan diñogunean, artez eta oso-osoan bideratuta baiño.

Eta jakiña, eremu guzti ori, ordu erdi bakar baten goldatu, zeaztu ta eraginterik ez dagoanez, nai ta naiez-ko dogu, eremua sailletan banandu, ta gure bearra sail berezi bat edo bestea aztertzeraz zuzentzea.

Baiña, emen dator kakoa: Zein sailletan sartuko dogu atxurra?

Nik, Bermeo'tarra izan arren, ez dakit gauza asko Bizkai'ko arrantzaleak, arraiñak ontzi barrura sartzeko erabilten dabez tresna ta martingalei buruz.

Ez eta arein pentsakera, siñiskeri ta mitoloji-kontakizunei buruz be.

Ostera, Bermeo'tarra izatez ganera, lege-gizona nazez, ba daukot, larregi ez ba'da be, gure lurraldeko arrantzaleen artean gorputza artu dauan lan eta gizarte-eraketaren barri.

Beraz, azken gai au erabiliko dogu gure gaurko itzaldiaren ardatz lez, arrantzaleen gizarte-eraketaren barruan oiñarrizkoak diran kofradien azterketea azpimarratuz. Ez doguz ikutuko ba, kofradiekaz loturarik ez dauken arrastrero, atunero ta antzeko beste arrantzaleen gora-berak.

Bestalde, an-or-emendik jazotako jakingarriak ekarriko doguz gure berbaldira, goibeltasun larregitik iges egin bai, baiña aide batera, gure azterketea Bizkai'ko erririk geienetara zabaltzeko alegiñetan.

Azken oartxu lez, zera adierazi: Arrantzaleen kofradiak gaur egunean bizi daben egoerea zeatz-meatz azaltea baiño, Anaidion kondaira-ari ta tradiziño-zertzelada batzuk agertzea dogula asmo-elburu, oraiñaren jatorria, Ieenaren korapilloetan finkatuta dagoan ezkerro, atzoaren barri eukitea, gaurra sendo ezagutzeko derriorrezko lez agertzen jakulako, batez be, arrantzaleen kofradien kasuan jazoten dan legez, atzoaren eta egunaren artean, ezbardintasan aitatzeorik, egon be ez dagoanean.

Goazen, beraz, geure ariagaz.

## 1. ZER DIRA KOFRADIAK?

Langintza-erakundeak doguz kofradiak. Joanda dagoan sasoi batean sortuak izan arren, ondiño bizitasun kemen-tsu batez irauten daben lan-erakunde batzuk.

Baiña..., xeetu daigun adierazi dogun au.

Antziñako gizaldietan, oso zabaldua egoan Europa'ko lurraldeetan zear, iangintza bardin baten jardunean eabilzan beargiñak, euren ofizio arautu ta zaintzeko elburuagaz sortzen ziran Gremio, Anaidi ta Kofradia, izen ezberdiñak artzen ebezan lan-erakunde batzuetan alkartzeko oiturea.

Orrelan, oiñetakoen egilleak, ontzi-egilleak, okela-saltzaillak, eta orokorrean, langintzarik geienak, onelako alkarreetan batuta agertzen ziran gizartearen aurrean.

Gure asaba zarrek ez eutsen leporik emon Europa guztitik zabaldu zan jokera oneri, ta Euskalerrria'n be, makiñatxo bat Gremio ta Kofradi sortu ziran gizaldietan zear. Gure Uri aundienetako alderdi zarretan, "Zapateria", "Pescaderia", "Carniceria" ta antzeko beste izen batzuk agertzen jakuzan kaleak, errealitate orrek, Euskalerrri'ko lurretan izan eban arrakasta andiaren kondairalekukoak doguz.

Lauki onen barruan, arrantzaleen kofradiak, aitatu dogun Gremioetan batzeko jokereak, itsas munduan, eta bereiziki, arrantza-arloan izan ebazan oiartzunen emoitzak doguz.

Baiña, txarri guztiei San Martin eguna eltzen jaken moduan, Gremio ta kofradien urrezko sasoiari be, bere amaiera-aldia ganeratu jakon lasterrean. Eta batez be,

XVIII. gizaldira eldu ta arrezkerro, gitxi-gitxika desager-tzen joan ziran gure inguruetatik, Anaidi usaiñeko erakunde guztiak, liberalismoak aldarrikatzen eban langintza-askatasunaren kontrako zerak lez artuak izaten ziralako.

Arrantzaleek osterata, kondairako aizeei aurpegia emonaz, euren kofradi kutunei sendo ta ezin-indartsuago eusten saiatu ziran, Anaidien kontrako ekintzak iraun izan eban unekada luze-samar guztian zear, eta iñola be ez eban itxi, liberalismoaren eragiñez, zein beste edozein arrazoiren baten bultzadaz, erakunde jator oneik gure portuetatik aide egitea.

Gaur, urteak bitartean dirala, argi ta garbi ikusi daikeguz gure iraganeko itsas-gizonen eusketa-lan izerditsu orren frutuak: Bizkai'ko edozein arrantzale-portu batera urreratzea baiño ez daukagu, kofradiak, gaur egunean dauken bizitasunaz, eta arrantzaleen lan-eraketaren barruan, ondiño jokatzen daben paperaren garrantziagaz oartzeko.

## 2. NOIZKOAK DIRA KOFRADIAK?

Euskaldunon itsasoarenganako zaletasuna, ez da atzokoa.

Lur onetako semeok ba daroagu gizaldi-mordo bat, itsasoak austen eta arrantza-lanak jorratzen.

Gai onegaz lotuta, Bizkai'ko arrantzaleen Anaidi edo Kofradiak be, naiko antziñakoak doguzala esan geinke. Len, joan da dagoan sasoi bateko aztarnak lez aurkeztu doguz. Baiña... zeaztu al ete da joanda dagoan sasoi ori zein izan leiteken?

Bai, zalantza barik.

Arrantzaleen kofradien jaiotzea, Erdi-arloan kokatu bear dogu. Ain zuzen be, amalaugarren gizaldikoak dira, gitxienez, Bizkai'ko lurraldean zarrenak lez agertzen jakuzanak.

Bermeo'ko arrantzaleak, esaterako, 1353. urtean idatzi ebezan euren kofradiaren ordenantzak; Baiña sasoi orretarako, Anaidiak ba eroiazala bizirik urte batzuk esan geinke, araudiaren kapitulurik geienak, "...otro si hemos de costumbre antigua y ordenamos...", "...otro si hemos de costumbre inmemorial y ordenamos..." eta antzeko esaldiekaz asten diralako.

Lekeitio'ko kofradia be aldi berekoa dogu. Baiña erri oneri dagokionez, ez datoz batera ikerlari guztiak, kofradiaren jaiotze-eguna zeazterakoan. Rumeu'k, esaterako, erriagaz batera sortu zala diñosku, 1325. urtean. Osterata, Cavanilles istorialariaren uestez, 1381. urtean burutu ziran kofradiaren tajuketa-lanak. Labairu'ren eritxiz, barriz, XV. gizaldikoa da Lekeitio'ko Anaidia. Zeatzago esateko, 1460. urtekoa. Baiña jakingarri au ez da zuzen-

na izan bear, dirudienez, Ugartetxea'k, bere liburu-etari-ko baten, kofradiari buruz itzegiten dauan agiri baten barri emoten dauskulako.

Dana data, zera aitortu bearrean aurkitzen gara Bizkai'ko kofradien sorketa-aldiari buruz: Aitatu doguzan biak kendu ezker, beste guztiak, osteragokoak jakuzala. Edo obeto esateko, osteragokoak dirala, beintzat, gure eskuetara eldu diran eurai buruzko jakingarririk zarrenak.

Orrelan, Plentzi'ko arrantzaleen kofradiko lenengo-ko araudia 1524. urtekoa da, ta Ondarru'ko Anaidiaren ordenantza zarrak, 1593. urtekoak. Mundaka'ko eleizateari dagokionez, bertako arrantzaleen Gremioa XVII gizaldian ikusten dogu lenengoko aldiz, Bilbo'ko konsuladoagaz itun bat izenpetzen; eta Elantxobe'koari buruzko jakingarririk zarrenak, XVIII. gizaldikoak doguz.

Portu guzti oneitan, aitatu doguzan urte ta gizaldien aurretik be, ba egozan arrantzale ta itsas-gizonak ziur asko. Baiña sendo eratutako kofradiak egozanik, ezin geinke ziurtatu gaurkoz, dokumentziñoaren ara-bera.

Azkenez, ekarri doguzanakaz ez dala amaitzen Bizkai'ko lurraldean, gizaldietan zear izan diran itsas-gizonen kofradi guztien zerrendea adierazi bear dogu. Orrein ganetik, garrantzi gitxiagoa izan bai, baiña euren bizitza xeea euki izan daben beste arrantzale-anaidi batzuk be euki ditugu gure inguruetan. Euren artean, eta dandanak sartzeko asmo barik, Portugalete, Algorta, Zierbana ta Armintza'koak aitatuko neukez nik.

### 3. ZELAKOA DA KOFRADIEN BARRU-ERAKETEA?

Kofradien eraketez asterakoan, Anaidiaren agintea noren edo nortzuen eskuetan dagoan itauntzea dator-kigu burura lenengo ta bein.

Nork agintzen dau, beraz, Bizkai'ko arrantzaleen kofradietan, eta zelan eratu ta bideratzen da aginte ori?

Erakunde oneitan, ez dau kanpoko iñork agintzen. Arrantzeleak eurak dauke kofradiaren agintearen ardu-rea. Baiña... diñogun onek, ez dau adierazo nai kofradi barruan, marine] bakotxak, berak gura dauana, ta bere erara egiteko eskubidea daukanik gero. Arean be ez orrelakorik. Arrantzaleen agintea eraketa sendo batez apainguta agertu oi jaku kofradiaren barruan, eta jaurketa-organu (Organos de gobierno) mota ezbardin biren bitartez mamituta: Arrantzale askoz osotutako organuen bitartez eta kofradikide bakar batek gorpuztutako karguen bidez.

Zeatzago ikusi daiguzan batzuk eta besteak.

#### 3.1. Arrantzale askoz osotutako kofradien jaurketa-organuak

Mota onetako jaurketa-organuen artean, Arrantza-

leen Batzar-Nagusia dogu, orain eta emen, aitatzeta merezi dauan bakarra.

Guk ezagutzen dogunetik, betidanik egon da kofradi-eraketearen barruan, tankera onetako organuen bat edo beste. Ordenantzarik zarrenak be, "Ayuntamiento de Cavildo", "Junta de Cofradia" ta antzeko izenekaz ornidutako organuen barri emoten dauskue, ta arrezkeroko kofradien dokumentuetan, noiz-gura agertzen jakuz Arrantzaleen Batzarrak, ofizioaren arazoei buruzko erabagiak artzen.

Batzar Nagusi au, Kofradi barruan geien agintzen eban organua izaten zan, antziña, ta bertan artutako erabagiak, nai ta nai ez onartu bearrekoak izaten ziran arrantzale guztientzat.

Bestalde, bere ardurea, bere egitekoa, ondoren jarren doguzan puntu bietan zeaztu geinke:

a) Arrantza arloan sortzen ziran eztabaida ta arazo guztiak konpontzea, orretarako egokienak ziran erabagiak artuaz.

b) Kofradiko kargurik garrantzitsuenak izendatu, ta agintearen epea amaitzen jakenean, kargua itxiten ebe nei kontu-arrazoak eskatzea.

Arrantzaleen kofradietako Batzar Nagusia aztertzerakoan, alboratu eziñezko gai bat agertzen jaku beti: Nortzuk osotzen eben Batzarra? Nortzuk euren bere sesiñoetara joateko eskubidea? Armadore edo ontzijaube bakarrak, ala arrantzale guztiak?

Orain baiño lenago be, sarritan jarri da itaun ori mai ganean, eta erantzun ezbardinak jazo dauz ikerlarien aldetik.

Gure ustez, puntu onetan, Gremiorik geienetan jazo zan kontua gertatu zan arrantzaleen kofradietan be.

Erdi-aroan sortutako Gremio ta Anaidi askotan, XV. gizalditik aurrerantz Europa'ko lurralde guztiak jalgi eban ekonomi-larrialdiaren bultzakadaz-edo, gitxi-gitxika usteltzen joan ziran maestro ta ofizialen arteko artuemonak. Alde batetik, maestroak, berez be, naiko zorionekoa zan euren gizarte-barruko postua, geroago ta bitxi lortueziñago baten biurtzeko alegiñetan asi ziran; Eta bestetik ofizialek, ugazaben jarrearen ara-bera, eroien bizimodu larria aldatzeko biderik ikusten ez ebe-nez, asarre-bizitan jarri ziran nagusien aurka, makiñatxo bat eztabaida, naste-borraste ta gorabera zaratatsuk sortuz.

Gauzak orretan, Gremio asko, ofizio bardiñean ebil-zan langillen aterpea izateari utzita, maestro utsen aginte-bide batzutara biurtu ziran; Au da, Ugazaba ta Nagusiak, euren almena langilleen ganean jartzeko erabilten ebezan tresna batzutara.

Arrantzaleen kofradietan be, antzeko zeozer jazo zan. Asiera baten, kofradikide guztiak joan oi ziran

Batzar Nagusira, ta danak euken, eritxia agertu zein botoa emonaz, bertan egozten ziran erabagietan parte artzeko eskubidea. Baiña denborea joan eta denborea etorri, armadoreak, ekonomi-arazoak eragingarri ebeza-ia, arantzale arruntak kofradiaren aginte-bideetatik bas-tertzeko ekintzetara jo eben, indartsu, ta une konkretu batera ezkerro, kofradiaren jaubetzea euren esku bakarretan batzea lortu eben. Ondorenez, Batzar Nagusia, armadore utsen txoko antzeko leku bat biurtu zan.

Bermeo'ko kasua ekarri geinke, apaingarri, diñogun aldaketa au argiago ikusteko.

Erri onetako kofradiaren 1353. urteko ordenantzak, sasoi aretan, kofraditar guztiei emon bear izaten jakela Batzarrerako deia ezagutzen emoten dauskue, danak eta bakotxak, euren erizpideak antxe adierazteko auke-rea izan egien. Ain zuzen be, 20. kapitula argiemoillea dogu puntu onetan:

"... cuando hubiere alguna necesidad de facer junta-mento de cavildo sobre algunas cosas de sobre mar que los dichos mayordomos sean tenudos y obliga-dos de nos hacer saber a *todos los cofrades de la dicha cofradía...*"

Egoera onek zenbat irauin eban ez dakigu.

Baiña XVIII. gizaldiko liburu zar batzuk agertzen dauskuenetik, eunkada onetan, aldatuta egoan jadanik, antziñako sistema, ontzijaube bakarrak joan oi ziran, geienetan, kofradiko Batzar Nagusietara-ta.

Noiz eta zelan aldatu zan aspaldi-danik zutunik egoan oitura zarra?

Gaurkoz, ez daukagu esku artean itaun onentzako moduko erantzun egokirik. Baiña aldeketea izan zana, jakin dakigu, argi ta garbi.

XVIII. gizaldian, Bermeo'ko arrantzaleen kofradia- ren iru-lau puntu eztabaidatsui buruzko bere eritxia agertzean, aitatu dogun aldaketa onek, bere eskutik dakarkigun kezka bardiña, agertu eban Bilbo'ko lege- gizon batek. Zera iñoan orretarako idatzi eban infor- mean: Ez ekiala berak, antziñako ordenantzak Batzar Nagusirako deia kofradikide guztiei egin bear izaten jakela esan ezkerro, Armadore bakarrez osotutako Batza- rretan, kofradia osoari buruzko erabagiak zelan artu leitekezan:

"... no se io como juntandose acordando solos los pocos dueños de barcos, pueden sus acuerdos ligar a todos los cofrades mediante lo dispuesto en el capitulo veinte..."

Batzar Nagusiaren azterketeagaz amaitzeko, bere bere- zitasun bi aitatu doguz: Agertzen eban seriotasun kutxua aide batetik, eta bere inguruan sortu oi zan jai-giroa bestetik.

Arrantzaleak, ospe ta arreta-andiko zer bat lez jotzen eben kofradiko Batzar Nagusia. Garrantzi orrek eragin-

da, Ordenantzak be seriotasun-jantziz estaldu, ta arau- gogorrez zuzentzen ebezan Batzarrei buruzko gora-bera guztiak. Orrelan, esaterako, mariñelen alperkeriagaitik, sesiñoak, erdi-utsik eta erabagiak artu-eziñik aurkitzeko arriskua alboratzearren-edo, derriorrezkoa zala iñoen araudirik geienak, arrantzaleak batzarretara joatea, ta zigor gordiñak jarten eutsezan lepo-ganean, betebear orreri tati egiten eutsenei.

Antzeko zentzu batek aginduta, osoan debekatuta egoan egon, kofradiko Batzarrak burruka-toki lotsagarri batzutan biurtu ez egiezan, norbere eritxi ta usteak azaltzerakoan, aldarrika asi, aiñenak esan, edota batzarki-deei irain larriak botatzea. Sesiñoetan ago-loi agertzen ziranen bizkar ganera jausi oi zan ordaiñaren latza be, ez zan makala izaten.

Agirian dagoanez, ba, kofraditarrak ez eu<sup>k</sup>en Batzar Nagusia San Juan-suetan erre edo leiotik bera botatzeko.

Dana dala, ez uste izan Batzar Nagusiari buruzko gai guztiak illun, itzal, txordo ta ezin-astunagoak izaten ziranik gero!!

Arrantzaleek, ba ekien, ondo jakin be, Batzarra aitzaki lez artuta, sekulako jan-edanaldiei ekitea. Anaidi ezbar-diñetako kontuliburuak, sarri emoten dauskue, Batza- rrok zirala-ta, jaki, ardautu txakoliñak ordaintzeko, montoitik atera bear izaten ziran diru-kopuruen barri. Bermeo'n, adibidez, 1753. urtean,

"... un dia que bubo congreso de cofradia gastaron entre treinta compañías a precio de diez y seis quartos de azumbre importan trescientos treinta y ocho reales".

Eta Elantxobe'n be, joan dan gizaldiaren asieran, oso zabaldua egoan kofradiko batzarretan zerbait jan eta edateko oiturea. Sasoi beratako kontu-liburuak ager- tzen dabenez, urte baten,

"... cuarenta y dos reales importe de desaiunos dados a los maestros y timoneles y otros en varias reunio- nes, sobre la maiordomia y otros asuntos..."

## 3.2. Arrantzale bakar batek gorpuztutako karguak

### 3.2.1. Maiordomoa

Kofradiko karguen artean, maiordomoa dogu, zalan- tza barik, garrantzirik geien agertzen dauana. Orregai- tik, postu au betetu oi ebenak, kofradi-barruan egoera indartsu baten aurkitu, ta arrantza munduan ondo sus- traitutako gizonak izaten ziran geienetan. Bermeo'n adi- bidez, XVIII. gizaldian, kofraditarrak izan bear izaten ziran maiordomoak, nai ta ez, eta itsasora ebilzan arran- tzaleen artean aukeratutakoak. Ondarru'n, antzeko zer- bait jazoten zan XVII. eunkadean: Anaidiaren buru lez agertzen zan maiordomoa, erriko mariñelen artean auke- ratu bear zala.

Baiña, nor eta zelan izendatzen eban maiordomoa?



Batzar Nagusiaren ardurea zan maiordomoaren izendatzea. Puntu ori, ganera, kofradi ta sasoi guztietan izan da orrelan.

Alderantziz, izendatze orretarako jarraitzen zan bidea-ri dagokionez, kofradia guztiak ez ebela bide bardin bat jarraitzen esan bearra dago.

Iru sistema ezbardin erabilten ebezan Bizkai'ko portuetako arrantzaleak, kofradiko maiordomoaren izendatzea mamitzeko:

- Aukeraketea.
- Zozketea.
- Errematea.

Aukeraketea, Plentzi, Lekeitio ta Bermeo'ko kofradietan jarraitzen zan; Ikusten danez, ba, porturik geien eta garrantzitsuenetan zabaldua egoan izendatze-erea zan au.

Errematea, ostera, XVIII. gizaldiaren osteko Bermeo'ko Anaidian bakarrik erabili oi zan. Erri onetan, antziñako oitureari jarraituz, aukeraketa-aldiak eltzen ziran bakotxean, kofraditarren artean sortzen ziran sekulako burruka ta eztabaida zaratatsuak alboratzearen, 1732. urtean, arrantzaleak, Batzar Nagusian batua, ta aurrerantzean, maiordomogintzea errematean ateratzeko asmoa agertu eben. Akorduaren berba zeatzetan, .. sacar la maiordomia a remate y candela pública..." erabagi eben.

Azkenez, zozketea, Elantxobe'ko arrantzaleen Gremiokoak erabilten eben, soil-soillik, Bizkai'ko lurraldekoen artean. Anaidi onetako aktak, ez daukue gauza asko esaten, eleiz-ate aldapatsu onetako kofraditarrak maiordomoaren zozketea zertzeko emon oi ebezan oinkada zeatzei buruz, baiña agirion ara-bera, Elantxobe'tarrek, maiordomo-izendatzea zozketa-bidez burutzen ebela, ez daukagu ukatu edota zalantzan jarteko.

1832. urtean, esaterako, sasoi akordu-liburuak agertzen dauanez, zozketea egin ondoren, Francisco Gorozika izeneko batek urten eban maiordomogintzean inarduteko. Baiña arrantzale onek, kargu ori artzerik, entzun be gura ez ebenez, zera egin zala diñosku aitaturako agiriak: "... se hizo nuevo sorteo de mayordomo cuyo empleo ha recaído en Domingo de Sarricolea..."

Bein izendatua ezker, urte beterako izaten zan maiordomoaren kargua: Au da, urte bateko aukeratze-egunetik, urrengo urteko egun bardiñerarte luzatzen zan kofradiko buru onen aginte-aldia. Bermeo'n, adibidez, San Martin egunean asi, ta urtebetegarrenean laga bear izaten eban maiordomoak bere kargua. Plentzi'n be, beste orren beste. Lekeitio'n, barriz, ekainaren ogei ta amargarren egunez egin oi ziran maiordomogintza-arte ta uzteak.

Ganeranzko portuetan be, bardin-antzean jazoten zan.

Bestalde, aginte-epea amaitu ondoren, bere ardura-pean egozan arlo guztiei buruzko kontu-arrazoiak emon bear izaten ebazan maiordomoak, Batzar Nagusiaren aurrean. Zeatzak izan oi ziran kofradietako ordenantzak, kontu-emote ori arautzerakoan. Orrelan, kofradi ezbaridiñetako liburuak diñoenetik, Bermeo'ko Anaidian, Santa Katalina egunez egin bear izaten zan maiordomoaren deskargu au, Plentzi'n, Iñozente egunean, Elantxobe'n, otsaillaren bigarren egunean eta Lekeitio'n, San Pedro jaiaren biaramonean, au da, ekainaren ogei ta amarrean.

Maiordomoaren zer-egiñekaz sarturik, ez eukala lan errezik aitatu bear dogu. Bere egitekoa patxadaz betetzeko, zorrotz, burutsu, zoli, zuzen, eta diru-arazoetan argi be ondo argi jokatu bearra izaten eban, urte bako-txean, maiordomoaren kargua bereganatuta eukan arrantzaleak. Orrezker, ba, arrantzale ganorabako ta traketak, ez euken maiordomoa izaterik. Eta armadoreak ez ziranak be, jakiña, sarritan, aukera orretatik aldentuta agertzen ziran.

Baiña, zeintzuk ziran, ain garrantzi andiz apainduta agertzen jakuzan maiordomoen bete-bearrak?

Kargu oni leporatu oi jakezan ardurak, ondoren dakarguzan bost puntuetan zeatzu geinkez:

a) *Diru-kontuen ardurea*: Kofradiaren eskuetara, aide batetik zein bestetik etortzen ziran diruak batu, gorde, zaindu ta ordainketak egitea.

b) *Kofradiaren ondasunen ardurea*: Kofradiak, bere lana aurrera ateratzeko bearrezkoak ebazan tresna, liburu, etxe ta beste gauza guztiak jabotea.

d) *Kofradiaren aginte-ardurea*: Ordenantzetako aginduak eta Batzar Nagusian artutako erabagiak arrantzale guztiai betetu eragitea.

e) *Arrain-saltzearen ardurea*: Kofradikideek portura ekarren arraiña aide batera saltzea.

f) *Epaille-ardurea*: Arrantza-gaiak sorburu zirala, kofraditarren artean, noiz-beinka sortzen ziran eztabaida ta izkilluetan, epaille modura agertu ta sententzi egokiak emotea.

Gaur egunean, kofradiko karguetatik aldentuta dago maiordomoaren irudia. Baiña bere orde, gitxi gora-bera zeregin bardiñetan inardu oi dan Presidente, Lendakari edo Patroi Nagusiaren kargua ezagutzen dabe Bizkai'ko kofradiek.

### 3.2.2. *Señeroa*

Arrantzaleen kofradietako kargu berezi bat dogu señeroarena. Au da, itsas mundutik kanpora ezagutzen ez dan kargu bat.

Maiordomoaren kasuan legez, señoaren izendatzerako be, bide ezbardinak jarraitzen ebezan kofradia. Baiña kargu aregaz jazoten zanaren kontra, emen, bi besterik ez ziran izendatze-ereak: Aukeraketea ta Zozketea.

Aukeraketea, Bizkai'ko kofradien artean geien zabaldua egoan izendatze-bidea zan. Baiña ori ta guzti be, Anaidi danetan ez zan aukeraketarako bide bardin bat jarraitzen.

Batzutan, arrantzaleen batzarrak aukeratzen ebazan señoeroak, bai zuzen-zuzenean, Plentzi'n jazoten zan lez, zein sei gizon adituz osotutako komisiño aukeratzaille baten bitartez (Bermeo'ko XIV. gizaldiko kasua dogu au).

Besteetan ostera, maiordomoak eurak izendatzen ebezan señoeroak, edota aurretik kargu berean inardu, ta aginte-aldia amaitzeagaitik-edo, señoerogintzea iztera

Zozketeari dagokionez, ez zala gauza arrunta señoeroa izendatzeko bide orretatik joatea onartu bear dogu, baiña an-or-emendik batu al izan doguzan dokumentuetan, ori, orrelan egin oi zanaren lekuko bat baiño geiago ikusteko aukerea izan dogu-ta, guk geuk, agiriok darioena ona ekarte baiño ezin dogu egin. Ain zuzen be, Bermeo'ko kofradian, XVIII. gizaldian, antziñako aukeratze-erea baztertuta, zozketara ateratzen zan señoeroaren kargua, Orretarako, ondoren alzalduko dogun bidea jarraitzen zala: Lenengo, ontzi jaube bakotxaren izena paper-zatitxo baten idazten zan. Bein, armadore danen izenak paper-mukur banatan jarrita egozanean, idazkitxo guztiak oratu, ta txapel baten barruan sartzen ziran, alkarren artean ondo naastuta itxiteko. Zurrumbilloaren-zurrumbilloz, zein norena zan ezagutzeko modurik be ez egoanean, "esku-garbi" batek, papertxo bat jasoten eban alderatik, eta bertan idatzita agertzen zanaren bizkar ganera jausten zan, urtean zear, señoeroa izatearen ardurea.

Dana dala, señoeroa izendatzeko bide bat zein beste jarraitu oi zala, kofradirik geienetan, kofradikide bi izaten ziran, gitxienez, kargua betetzeko aukeratu oi ziranak, eta karguaren epe edo aginte-aldia, urte batekoa izaten zan.

Bestalde, eta errez ulertzeko gauza bat danez, edozein ez zan señoeroaren lekuan jartzeko gai izaten. Itsasoa ondo ezagutzen eban pertsonak izan bear izaten ziran señoeroak. Arrantzaleak eurak be, ondo baiño obeto ekien ori, ta ordenantza zein Batzarretako erabagien bidez, noiz-gura jartzen ebezan señoeroa izateko betetu bear izaten ziran baldintzak.

Plentzi'n XVI. gizaldiko ordenantzak, esaterako, zera eskatzen eutsen señoerako autagaiei: "... que sean personas instruidas en la navegación ..."

Bere aldetik, Lekeitio'ko kofradiko XVIII. gizaldiko araudiak, "... de la major satisfacción y vigilantes para cuidar y reconocer el tiempo, mareas y marettas..." izan bear zirala señoeroak agintzen eban.

Baiña, jo daigun kargu onen zer-egiñetara.

Señoeroa, arrantzaleen lana ziurtasun-giro baten aurrera ateratzeko asmoagaz sortutako irudi bat dogu. Dakigunez, itsasoa, inguru-giro gaizto, mizkatu ta muxerua danez, bere ganean lanean ibilli bearrak, arriskuak ugari dakarkiez arrantzaleei. Itsaso-ganeko lanaren berezko arriskugarritasun orren aurrean, kofradi bakotxak, bere barruko arrantzaleei, itsasora askatasun osoz urtetzeko baimena emongo ba'leutse, itsas-gizonen artean ain sakon sartuta dagoan nork-geiagokeriaren bultzakadaz, zenbait ontzi, urak asarre-bizitan egonda be, arrantzan urtengo litzakez ziur asko, alboko txalupak baiño arrain geiago barruratzeko asmo txalogarriaz, bai, baiña aldi berean, ontzibarruko lagun guztien bizitza arrisku-gorrian jarriaz.

Señoeroaren irudia, ba, arrantzaleen eguraldiarekiko buruarinkeriak baztertze asmatuta dago.

Orrelan, astegunetan, beste inor baiño lenago altzatu oi ziran ogetik señoeroak, eta eguraldiak agertzen eban itxurea aztertu ondoren, itsasora urtetzeko baimena emon, ala portuan lotzeko komenigarria agertzen eban, danak batera artutako erabagi baten bidez.

Señoeroak eguraldiari buruz inoena, lege biurtzen zan ontzi guztientzako, ta euren aginduen aurrean, arrantzaleak, ez euken besterik, oso-osoa betetzea baiño.

Señoeroen egunsentiko zer-egin au, oso ondo agertzen dausku Von Humboldt Germaniarrak, XIX. gizaldiaren asieran Euskalerritik egin eban osteran ikusi ebana munduari ezagutzera emoteko idatzi eban liburu baten. Idazki onetan, Lekeiti'ko oitura-bitxiak eta ekan-du aitagarriak adieraztean, señoeroen egiteko berezia agertzen dau, ezin artez eta dotoreago. Ona emen bere berbak:

.. señoero bi joan oi dira egunsenti guztietan portu ondoan dagoan talatxora. Itsasoa asarregi ba'dago, ez dabe itsasorako baimenik emoten. Barriz, ura bare-bare ba'dago, arrantzaleei del egiteko ardurea dauken 24 edo 26 neskatillei, lo dagozan mariñel guztiei batzarra dagoela jakin-eraztea agintzen dau-tse. Neskak, erri guztiari buelta osoa emoten dau-tse, goitik bera ta eskerretik eskumatara, kofradiki-

deei Jainkoa'ren izenean, esnatu ta izartuteko eskatuaz. Deiarri erantzunez, arrantzale guztiak batzen diranean, eztabaideari ekiten dautse lenengo, ta gero, autuak amaitutzat jota, itsasora urtetzea komenigarri dan ala ez erabagiten dabe danen artean, botoa bide dala..."

Baiña egun-argitzean burututen eban onegaz, ez zan amaitutzat joan señoaren lana.

Danok dakigunez, itsasoa azpijoko-zalea da osoan, eta goizean-goiz, aurpegi alai ta barretxuaz agertu arren, ba daki, ondo jakin be, une batetik bestera, begitarte illundu, ta muturra asarre baiño asarreago jarten.

Eguraldi-aldaketa arrigarriok jazoten ziranean be, ba eukan señoak zer-egiñik, bere pentsura egoan egon, itsasoa arrantzan ibilli ta itsaso txarraren susmoa agertzen zanean, etxera bueltatzeko agindua emotea-ta. Indar-jantziz apainduta agertzen ziran, señoerok egoera onei erantzuteko emoten ebezan aginduak be, ta derriorez jarraitu bearrekoak izaten ziran kofraditarrentzat, zigor latzen ordainpean.

Gaur egunean, ia osoan baztertuta dago señoaren kargu jator au, Bizkai'ko kofradietatik, Guk dakigula, Bermeo'n baiño ez da jarraitzen, orain, señoeren inguruko oitura-mordoa.

### 3.2.3. *Ustrumanak edo itsas-alkateak*

Izen bi oneikaz ezagutzen doguzanak, arrantzaleen kofradietako beste antziñako kargu berezi batzuk doguz. Zer egiten eben? Azalpen txiki baten ondoren ikusiko dogu.

Asmatu al izango dozuenez, arrantzaleen kofradiak ez ziran antziña, eta gaur be ez dira, olio-ontzi batzuk. Urteak aurrera ekin-ala, arrantza lanari lotutako amaika saltzaio, gora-bera, eztabaida ta iztillu latzun sortzen ziran kofradikideen artean: Arrantza-tresnak zirala, kaiak zirala, itsasorako orduak zirala, patroiak arrazoi barik arrantzale bat ontzitik kanpora atera ebala, ... noiz-gura egozan arrantzaleak, auren berezko bizitasuna biztuta, alkarren arteko burrukaldietara joteko prest.

Eztabaidoi urtenbidea billatzeko, ordenantzetara edo-ta kofradiko batzarretan, arrantza-lanei buruz artutako erabagietara joateko oiturea egoan. Argi egoan, beraz, izkilluen aurrean zirt edo zart egin bear zan jakiteko, nora jo bear izaten zan.

Baiña, nork egiten eban arrantzaleen artean epailearen papera? Nork zeaztuten eben ezatabaida bako-txari aplikatu bear izaten jakon araua, ta aplikaziño orretatik urtetzen eban sententzia emon?

Len, maiordomoaren lana zala au esan dogu, eta ondo esanda dago, portu batzutan, beintzat, orrelan

egiteko oiturea egoan-eta. Urrunago jo barik, Lekeito'n, XVI gizaldiaren asieran, erri onetako kofradiaren maiordomoak, zera agertu eban eztabaida baten aurrean:

.. en caso de nabegación y mareaje a nosotros como a mayores nos toca el poner y probar y conserbar las cosas tocantes a dicha cofradia y nabegación, sin intervención de la justicia ordinaria..."

Bermeo'n eta Plentzi'n, barriz, kargu berezi bat egoan arrantzaleen arteko eztabaidak ezagutu ta epaitzeko: "Ustruman" edo "Instruman" izeneko kargua.

Ez dakigu izena nundik etorri leikioen Ustrumanoi, baiña euren izatea, argi-argi dario agiri zarretatik.

Plentzi'n, kofradiaren Batzar Nagusian izendatu oi zan kargu au, aukeraketa-bidez.

Bermeo'n, ostera, Udaletxeko karguen artean agertzen zan. Alkatearen laguntzaille modura: Zeatzago esateko, Erriko buruaren esku egoan epaille-zeregiña, arrantzaleen arteko eztabaidetan betetzeko arduraduna lez.

Dana dala, gaur egunean, desagertuta daukagu irudi au gure ingurutako kofradietatik.

### 3.2.4. *Bentadore edo Arrain-saltzailleak*

Bizkai'ko kofradietan zear oso zabalduta egoan beste kargu bat dogu Bentadoreen au, aurrean ekarri doguzan anaiño garrantzitsua izan ez arren.

Arrain-saltzailleon izendatzeari dagokionez, kargu au be, Batzar Nagusian aukeratzen zala, geienetan esan bear dogu. Bermeo'n eta Plentzi'n, orrelan izaten zan beñik-bein, ordenantza zarrak diñoskuanari kasurik egiten ba'dautsagu.

Bere zer-egiñaz, ez dogula zer-esan askorik uste dot. Karguaren izenak berak emoten dausku ezagutze-ara, argi ta garbi, Bentadoreon lanaren muiña zein izaten zan: Kofradiko arrantzaleek porturatzen eben arraiña batera jarri, ta subastan saltzea.

Corago be aitatuta daukagunez, arrain-saltzaillearen ardurea azken baten, maiordomoaren eskuetan egon oi zan Anadirik geienetan, baiña saltzeari egokiozan lan-materialak eta bete-bear zeatzak, kargu au betetzen eben kofraditarrak eroaten ebezan aurrera.

### 3.2.5. *Beste batzuk*

Puntu onetararte aiatu doguzanetatik aparte, ba eukezan Bizkai'ko arrantzaleen Kofradiak, ain ospe ta garrantzi andiko jantziz estalduta agertzen ez ziran beste kargu batzuk be.

Ez doguz azalduko orain, eurai buruzko zeaztasun eta jakingarri guztiak, orretan inarduko ba'giña, gure gaurko itzalditxo au lar baiño geiago luzatuko litzakelako.

Baiña ori gora-bera, ez dot uste zentzunbakokeri bat danik, geiago ez ba'da be, karguok, gan-ganetiko

zerrenda arin baten aitatzea. Gogoratu daigun, beraz, kontadoreak, Aguazillak, Atalaiadoreak eta kapellauak be ba egozala gure kofradietan, arrantzale inguruko lan-burpillaren barruan, euren zer-egintxu apala betetzen.

#### 4. ZER EGITEN EBEN KOFRADIAK?

Kofradiko kargu ta jaureki-organuak azaltzerakoan, erakundeon zer-eginen errepaso naiko zabal ta sakon bat egin dogula uste dot, kargu bakotxaren zer-eginak aitatzean, azken baten, kofradi ber-beraren egitekoak zenbatu doguzalako.

Baiña ori ta guzti be, Anaidiaren esku egozan bete-bearren arazoak, azterketa berezi ta zeatz bat eskatzen dauala uste dabenen eritxikoa nozue, gai orrek, aparte-ko garrantzi mamitsu bat daukala pentsatzen dodalako.

Ez dot uste, beraz, arrantzaleen anaidiak betetzen ebezan funtziñoen azterketatxo bat orain egitea, bere lekutik kanpo egongo litzakenik.

Orixe da, ba, ondoren egingo doguna.

Kofradien zer-egina, arrantzaleen munduko alik eta arazorik geienei erantzutea zan, antziña, alik eta arretarik geienagaz. Eta gaur be orrelan dala esango ba'gendu, ez giñake egiarengandik urrun izango.

Bermeo'ko kofradiaren 1353. urteko ordenantzak, oso ederto ta argi agertzen daukue, aldi areitan, Anaidiak betetzen ebazan zer-eginak. Araudiaren itzaurrean, kapituludiak ikututzen dauzan gaiak zenbatuaz, zera ekarren:

"...ordenanzas tocantes al oficio de pescar y para la gobernación y servicio del Altar del Señor San Pedro y para el reparo de los pobres de la dicha Cofradia para en servicio de Dios y sobre otros casos a su oficio tocantes ynnesarios..."

Zati onetan ezin-argiago agertzen jakunez, iru ziran, batez be, kofradiaren elburuak:

a) Arrantza-lana arautu ta eratzea ("... oficio de pescar...").

b) San Pedro'ren altarea zaindu ta bere omenezko ospakizunak atontzea ("... servicio del Altar del Señor San Pedro...").

d) Arrantzale txiroei laguntzea emotea ("... reparo de los pobres de la dicha cofradia...").

Lenengo puntuari dagokionez, oso zabala zan kofradiaren lana. Arrantza-lana eratzean, sareak, amuak, apariorak, arrantza-kalak, itsasorako orduak, arrantzale ta armadoreen arteko lan-artuemonak, arrain-saltzeak, eta gaiioi Iotutako beste arlo batzuk araututen ebezan kofra-

diak, bide batez, atonketa oi lako batez apaintzen ebezan bitartean. Zeatza, sakona ta ugaria dogu, Anaidiak, gizardietan zear, lan-tajuketa arlo onetan borobildu izan dabean bearra. Iñoiz be ez amaituteko moduko zerrenda bat osotuko genduke, aitatu doguzan gai guzti orrei buruzko kofradi ezbaridin erabagi ta neurriak zenbatzen asiko ba'giña. Naikotzat emoten dogu ba, gaurkoz, ekarri dogun erakuski edo muestreagaz.

Bigarren puntuan sartzeko orduan, kofradiaren ize-netik bertatik asi bearrean aurkitzen dogu geure burua. Arrantzaleen anaidiak, gremiorik geienak lez, Santu baten izena artzen eben beti. Bizkaia'n, San Pedro'ren titulupean agertu izan jakuz danak, Santa Klara izena daukan Ondarru'koa ta besteren bat edo bi izan ezik.

Izena jarterakoan jarraitzen zan jokera au, ez zan kofraditarren mizkakeri bat, Anaidiak euker erlijio-dimensiñoaren izpillu zintzo-argi bat baiño. Arrantzaleen Gremioak, ordenantza ta liburu zarrak agertzen daukue, amaika elizkizun eta siñismen-ekintza burututen ebezan euren patrioiaren ikurpean. Orrelan, kofradirik geienak, San Pedro'ren izenean eraikitako altare bat euki oi eben erriko Eleiza nagusian, ospakizunak eratzeke bear izaten ziran ornamento ta guzti. Bestalde, ez uste izan altare ta elizkizun-jantzi guztiok, bertan bera itxi, ta marasma-etkez josita egozanik gero. Gure arrantzale-arbasoak, ez euker eleiza-tresneri au sitsari jaten emon edo ardiak lodituteko. Orregaitik, ordenantzak, Patrioiaren altarean, kandelak beti biztuta eukitera, edota astearen barruan bi edo iru elizkizun egitera beartzen ebezan kofraditarrak ia beti.

Gaur egunean, osoan galduta ez ba'dagoz, gure inguruetatik noiz-aldenduko egon bear dira egon be, antziñako arrantzaleek, kofradiko Patrioi deunaren inguruan burututen ebezan erlijio-oiturak. Ekandu zar orreine artetik gelditzen jakuzan aztarren bakarren artean, Bermeo'ko portuan, San Pedro egunez, patrioiaren olezko irudi bat lepoan artuta, arrantzale batzuk egiten dabean prozesiñoa aitatu geinke.

Eta azkenez, kofradian arrantzako txiroen aldeko lana aitatzea falta jaku.

Anaidien laguntza-lan onen zabaltasuna, ezbaridin izaten zan Bizkai'ko portu batzuetan eta besteetan, baiña kofradi danak betetzen eben, bat bera be kendu barik, euren kideen aldeko ongintza zereginen bat edo beste. Arrantzale gaixotuei ditu-laguntzak eskeini, arrantzale zarrak pentsiñoak emon, kofradikideen alargun eta umezurtzei lan-sari ordekoak ordaindu, arraiñik ez egoan aldiatan, partilla-aurrerapenak arrantzaleen artean zabaldu..., irudimenak zelan emon, orrenbeste laguntza-mota ezbaridin burutu izan dabez Arrantzaleen Anaidiak, urteetan zear, beti, ori bai, esku-artean erabillen diru-kopuruaren neurrian.

**5. AZKEN BERBA BATZUK**

Onezkero, amaitzera goaz ba, gure gaurko Bizkai'ko kofradiei buruzko azalpena.

Emen botatzeko moduko jakingarri asko geiago be ba daukaguz partikaretan sartuta, baiña agertu dogunagaz naiko dalakoan nago, arrantzaleen kofradiei buruzko irudi artez eta zuzen bat izan dagizuen.

Bakarrik aitatu, aurrean azaldu dogun azterketearen bitartez, eta mai onek emoten daustan entzuteaz balia-

tuz, omenaldi bizitsu bat nai neuskiela eskeiñi, gizardietan zear, tradiziñoaren iturria ta egoera barriei erantzun bearra ain modu eder eta txalogarrian josi ta buztartzen jakin izan daben Bizkai'ko ta Euskalerrri guztiko arrantzaleei.

Euren omenez izan bedi ba, gure gaurko Ian au.

Eskerrik asko.

JOSU IÑAKI ERKOREKA

**IPUIN-SARIKETA**

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren maiko izendatuak 1987'ko abenduaren 17'an egin dabe euren epaiketa-batzarra eta aurkeztu diran idaz-Ian guztiak astiro aztertu ondoren, sari oneik emotea erabagi dabe:

- 1.n SARIA: "AITOR'EN ERIOTZEA" ipuiñari, Goikoetxea'tar Iñaki'rena, 40.000 pezeta.
- 2.n SARIA: "MIKOL ETA ARRAIN GAIZTOAK" ipuiñari, Zubikarai'tar Augustin'ena, 30.000 pezeta.
- 3.n SARIA: "Sorgin-Batzarrak eta gizon konkorduna", Alzola'tar Elixere'na, 20.000 pezeta.
- 4.n SARIA: Okela bikain eta merkea Kortajarena'tar Andoni'rena, 10.000 pezeta.

Saridunai gure zoriona eta lanak bialdu dabezan guztiai gure eskerrik beroenak.

EUSKERAZALEAK

AN, OR, EMEN

1986.-Uztailaren 18'an, 1936'an asitakoa benetako gudea zanaren ezaugarri, Otxandio'ko bonbaketea, uztailaren 22'an; Andikona enparantza txikia, ildakoz bete, umeak batez be, egazkiñak ikustera urtendakoak. 50 urte ondoren Otxandio'k Meza eder, itzaldi ta bertsoz gogoratu eban egun ikaragarria.

\* \* \*

1987.-Urriak *bat*. Deustu'ko Unibersidadea eraiki zanetik 100n. urtearen ospakizunak asi dira, Erregea ta Erregiñea antxe zirala. D. Jose Migel Barandiaran bertako "Doctor Honoris Causa" egin eban, eta egunak barru Leizaola Ajuria-enean omendua.

\* \* \*

*Urriak 7:* Gernika'ko Batzar-Etxean lenengo Euzko Jaurlaritzaren 50n. urtea ospatu da. Leizaola Lendakari zarra, Ardantza Lendakaria eta Garaikoetxea Lendakari izana bertan zirala.

\* \* \*

1987.-Urterrilla'k 1.-"Eguna" lenengo euskerazko egunkaria sortzen da Bilbo'n, Agirre Lendakari beraren agindu ta eragiñez. "Eguna" k Bilbo faxisten menpe jausi arte iraun eban. Bera izan da euskeraz lenengo ta orain artean azkenengo egunkaria, naizta 1986'ko urriaren 5'ean "Eguna ez da eten" izenez EGUNA izeneko astekaria urten.

\* \* \*

*Epaillak 31.* 50n. urte-urrenak ospetsuak izan arren, Gernika'ri itzi bear jakola ospe osoa-ta, Durango'n orduko ildakoakaitik Meza Nagusi bat egiteko gauza ez giñan izan. Santa Susana'n (14 Ieikaime il ziran Iekaimete-etxe onetan) bai meza berezi unkgarri bat izan ei eban eta eleizea bete egin ei zan. Orregaitik, lengoak bonbaketa aiztuta geunkala-ta, oraingoai zelakoa izan zan jakin-azoteko, gazteak "bonbaketa-antza" egin euskuen. Ondo egon zana bonbaketaren erakusketa izan zan.

\* \* \*

*Jorraillak 26.* Bonbaketaren 50n. urte-eguna Gernika'n. 10'etan illerrian, bonbaketan ildakoen oroimenez oroitarri bat jarri zan. Gero Meza Nagusi ederra, Gernika'ko Koralak abestua, egun baltz negargarri aretan idakoen aide. Jaurlaritza ta beste agintariak bertan eta gero batzarretxean.



"Gernika" A. ARTETA'ren LALIKIA

Arratsaldean Batzarretzeko Bonbaketa-erakusketan, Arteta'ren "Gernika"rik ete euken itaunari, bertako neskatilla batek bizkor erantzun eban Picasso'ren "Guernica" bat erakutsiaz.

*Abenduak 11.* Zaragoza'n Guardia Zibillen Kaurtelean ETA'k lerkai bat ipiñi dau auto baten bidez, 11 ildako, euren artean 5 ume. 1937'an Mola-k egazkiñetik botariko orrietan: "Vascos, rendios, si no lo arrasará toda Vizcaya". Orduan be, bonbaketa izugarrien ondoren, ba-ziran olako zerbait esaten ebanak: Esan eta esan ibilli dira-ta..." Orain Vasco'ak eurena lortu-arte?

**Aurelio Arteta "Gernika"ren egillea**

Bilbo'n, 1879'an jaioa, 1936'ko gudateak Madrid'en Margolarien Goi-Ikastetxean irakasle zala artu eban. Balentzia'ra joan zan lenengo eta 1938'an Biarritz'en lauki asko margotu ebazan, gudea gai zala. Bonbaketaz apurututako urien artean "Gernika" dago.

1940'an Mexiko'ra joan zan eta ango uriburuan, lotazillaren 10'ean tranbiko ezbearrez il zan; erbestean eta apal, bera beti izan zan lez.

Bere laukiak Gabino Ganboa'k eskuratu ei ebazan eta gitxi ezagutuak dira.

MAITENA'K

## EGINAK

Gizarteko jokabidea, egiz, aurrera, eroatea, bizitzak berak danez goitik ta gizon zentzunak ta zuzentasunak eskatzen dabe. Gizonaren bizia burruka bat da munduan. Ta burruka ori dator berezko izatetik, alperkeritik, guzurretik zapaltzetik, zuzentasunik ezetik ta abar... Alperkeria, geienean, lodikotea izan oi da. Itxuraz biotz zabala, arpegi eder ta barretsua. Adiskide askodun giza-kia da.

Bere lagun kutunen artean, ezer egin ez dabenak, ondamuz beterikoak ta mina beti, norberak asmaturiko txarrak besteen aurka, bota alan, esaten dabiltezenak, izaten ditu. Ume arotik ezagutu izan dot era ortako jente graziozua. Toldopetan alkartuten ziran ardo, kafe ta kopa inguruetan, ta gero, ekin mutil, inguruko ezer egin nai ta egiten daben guztiak bera bota nairik.

Baiña irudi onek balio ba-dau, ekaitz artean jaio, esi ta arnariak emon dituan zugatza miragarria da. Beren barruko indarrez, ekaitz guztien aurka bizia zaindu dau ta bere erraietako almenez frutua emon deutso jaubea-ri. Ta andre ta gizonen aurrean erabiliak alderdi guztietatik, beti, burrukaz josita ta giza aizeak eta trumoiak menperatu ez dituenak, onek dira biziaren ardatza ta gizadiari eutsi-erazo bear deutesnak.

Era ontako erazoetan, gogoz, lan egiten dabenak, egiaren ta zuzentasunaren indarra ta argitasuna eurekin bear dabe. Ainbesteko denporala ba, ezin daiteke oiñarri on barik menperatu. Gaitz au berezkoa dau giza-diak. Izan bere, miñari eragitea oso erreza da, ta piper miñagaz doanien batez ere guzurra ta kalte egitea nas-tean dabela, askoz atsegiñagoa.

Egite onak luzarorako, oiñarri ona ta sustraia sendoak izan al dagizun, burlez, aurrean, erabilia izan bear ete dau? Gure aurrean ba-dogu ikasbide orren eredia emon deuskun maisua. Dana on egin ta azkenean zigorrik gogorrena emon eutsen. Munduak ezagutzen eban zigorrik gogor ta lotsagarriena.

Munduko jazokunak, edestiak, olantxe, dira urtien joan-etorrian. Baiña egiñak, or, geratzen dira gizon zent-zundunen ezaugarri.

Joan diran zortzi urte oneitan arriak eurak ere berba egiten dabe Euzkadin egin dan lanaren aide. Ta ez dira testigantza emoille txarrenak, aurrean ikusten dabena agertzen dabe. Bideetan zear ba-zoaz, aurrean daukazuz ikuspegi legez, bide zabak ederrak.

Kaisio bideak..., Noztik ona ba aldakuntza pozgarri onek...? Bai, gu len, urteetan egon gara esker txarrean

baztertuta... zuloz, arri baldar ta sastrakaz inguraturik Cure ondasunak ortik zear eroaten zituen ta emen gengoan, itxura txarrean, nekez ta miñez josita. Gure baserritarrak, aldatz gora ta aldatz bera, or ibili dira lorretan eta lerretan, eurek Euzkadiren oiñarria izanik. Andik urriñetik gure bizia ez eben ikusten ta laguntasunerako gitxiago onartzen. Arek ez ziran gure lur, inguru ta egoeraren adiskide min.

Noz edo nozkoren baten, aldi egokiagoren batek, izadiak diño, gure alderako eldu bear eban. Ta euskal semeak, erriko gizonak artu bear eben gure ardurea. Zortzi urte onetan bizitza barri bat ikusten asi gara... ta mendi, zelai ta arruetan zear arri asko dabilteaz berbetan.

Euzko gizonak, zatoze gure inguruetara ta jarrai eder lanean. Euskalerriko lur guztiak onartzen dau bere semeen lan jokabidea. Lanak agertzen dau erri ta auzoei egindako mesedea. Euskal mendiak, batean bestean, edonun, arnasa barria artu dabe ainbeste bide barri zabaiez, ta euzko basetxeak indar barriz sendotu dira. Poza eldu da gure lur-aldeetara ta eurok diardue esaten... jarrai on egiten, guk be orixe diñogu, on egin erriari ta erriak be ikusi dagiala, nor arduratzen dan berarekin.

### LANDUZ

Dana aldatz gora  
basa, zulo, arriak,  
bide bigurriak;  
otso eta artza arreak,  
pozez, oi u sasia  
ikaragarriak.

Kezkaz egon euzkoa  
aspaldi min larritan  
erriaren miñez;  
zapaltzaillea jun zan  
kateaik eroanez  
beren zoramenez.

Euzko gizon barriak  
aritzak mendia lez  
maitatzen erria;  
egia loratu da  
euzko mendiak zear  
basetxe zuria.

PAULIN

## ARRESE'REN ARGITARATU GABEKO OLERKI BERRIAK

Bi olerkari izan doguz, izen ortakoak, Euzkadi'n. Bizkaitarra bat, Otxandiano'ko Felipe Arrese Beitia; Gipuzta bestea, tolosarra, Emeterio Arrese Bauduer. Azkeneko onena da, gaur argira eman nai dodan olerkitxo au. Ez da gauza aundia, baiña benetan aundia izan bait zan bere egillea, merezi daula uste dot gure Aldizkari ontan emon gura dautsadan azalpena.

1869'ko Epaillaren 3'an jaio zan Emeter Arrese'tarra, eta 1954'ko Jorraillaren 7'an il zan; 85'eko agure zarra zala.

Asentu gutxiko gizona, "ankak ariñak eta burua ariñago", 48 aldiz —berrogei ta zortzi bider!—, izan zan Ameriketn, Ipar eta Egoaldekoetan, baita pelota-plazen empresario lez ere.

Ameriketn ain zuzen idatzi ebazan bere olerkirik geienak.

Oso olerkari ona dogu bera. Ez, nere ustez, Orixe, Lauaxeta ta Lizardi'ren maillekoa; baiña ez, iñolaz ere, askoz beeragokoa. Garai berean gaztelerak izan ebazan olerkariei lotsarik ez dautsena.

Adimen argi, idurimen bizi jostalari, sentimen sakon goxoko gizona; euskera beste edozeiñek ez bezalako erreztasun eta dotoretasunez erabilli oi eban idazlea; edertasuna igarri ta azaltzeko yayotasun bereiziko olerkaria; ez zan nolanaikoa izan gure Emeterio!

Ez neban nik gure Arrese debora luzean tratatu; Tolosa'ra itzuli zanez gero bera laister il zalako, aide batetik, eta, bestetik, ni orduan nere erritik kanpo sarritan ibiltzen nintzalako. Alatagutziz, Elizatik urrundutzat euki neban nik, eta ez neutsan beiñere erlijioaz itzik egin. Ezta berak ere neri. Aren erlijio-olerkiak ezagutzen dauzanak ez leuke beintzat esango kristau sutsua izan ez zanik, zoragarriak bait dira, pitxi ederrak; batez ere Tolosa'ko Zaindari dan Izaskun'go Ama Neskutsari idatzi eutsazanak. Danadalala, kristauki ii zan azkenean bere Tososa'n Izaskun'go Amaren babespean.

Gero esango dautsut, sendagille aren eta nere adiskide batek kontatu eustan garrantzi aundiko beste gauza bat. Orain, Arrese'ren olerkitxoa aurkeztu nai dautsut.

"Eskeintza" dau izen-buruz berak, eta Garbiñe Moraitz izen eban neskatil batentzat idatzia da; 1951'garren urtean. Garbiñe'ren aizta Mirentxu'k eman daust neri azkeneko egun auetan.

Garbiñe'k urte artako Orrillean aingeru lez agertu bear eban Tolasa'n Klaretarrek daben elizan, eta an irakurria izan eiten eskatu omen eustan olerki ori gure

olerkariari. Ez omen eban onek idatzi nai, olerkigintza erabat utzirik ebala aitzaki lez ipiñiaz, baiña neskatillak, eska ta eska, lortu eban azkenean bere guraria.

Garbiñe neskatillaren aoz, "Iere-sorta bat eskuan eta begietan pozaren argia ebala, urbiltzen yakola", abesten eustan olerkariak Zeruko Amari. "Lenen muxua, Amatxo arek eman eutsala-ta, orain, berak, lore-txorta bat eskeintzen eutsala Amari, eta txorta ori eskeintzeaz gaiñera, Ama goratzeko, jai aundi biurtu nai ebala bere bizitza, Arentzat omenik ederrena izan eiten".

Ona, olekiaren itzak ber-berak. Agian, Arrese'k azkenean idatzitako bertsoak doguz onako lerro labur auek:

"Lore sorta bat eskuan eta  
begitan poxaren argi,  
Zeruko Ama, zugana biotz,  
—ikara goxoz urbil ni.

Amatxok lenen muxu, nik orain  
lore-txorta polit ari:  
Berau eskeintzez Birjin Amatxo,  
omenik ederren zuri,  
gaur bezelaxe gero ta gero  
zure gorantzat jai aundi."

Badirudi ain kristauki ii zan Emeter'ek leen ere kontzientziko kezKaren bat izan ebala, nere sendagille adiskide arek kontatu eustanez. Azkue ta Zabala-Antxieta'tar Joseba zan Tolosa'ko sendagille ura. "Don Pepe" tolosar guztientzat. Abertzale zintzoa bere bi anaiak bezala. Auetatik bat, Koldobika, sendagillea zan; bestea, Josu, lege-gizona, gudatean Alikante'ko Audientzi edo Epai-Mai Nagusiko zuzendari izana. Izan eben beste anai bat ere: Jon, apaiza.

Ez dakit noiz gertatua dan "Don Pepe" kontatu eustana. Ni, 1949'an egin nintzan apaiz. Garai artakoa da gutxi-gora-bera gertakizun au.

Emeter joan omen yakon bein "konfesatu egin nai dot" esanaz.

"Nik —kontatu eustan "Don Pepe" k—, apaiz lagun bat banebala esan neutsan, Altzo'ko Erretorea, ain zuzen, eta arengana eramango nebala, gura ba'eban. Baietz erantzun eustan, eta Altzo'ra joan gintzazan. An —Apai-zari nerekin zijoana nor eta nolakoa zan adieraztearren—, "nik ere aitortu egin gura dot, eta ni joango naz aurretik, gero zuk gura dozun aiña asti izan daizun", Emeter'i esan neutsan. Eta nere atzetik sartu zan bera. Baita pozik andik irten ere! Gero, ostera biok kalean bakarrik aurkitu gintzazanean, "Pepe! —esan eustan—, gauza ederra egin diagu gaur"! Pozik artuko dabe Arre-



se'ren adiskideek iñork ezagutzen ez daun gertakizun alaiagarri onen berri.

Beste bi olerki auek ere oraindik argitaratu gabeak dirala iduritzen yat. Bat oso zarra da. On Patrizio Orkaiztegi Itxasoazu Tolosa'ko Parrokua il zanekoa, ta 1924'eko Azaroaren 6'ean il zan jaun ura. Ona zer dion kakotx bat ere aldatzeke, Arrese'k ber eskuz idatzirik, nik gordetzen dodan ingiak:

"iGoyan bego!"

"Orkaiztegi'tar Patrizio jaun maitea'ri"  
Negarrez iñor baldin bazegon  
zurekin poz arki zuan,  
besteri on bat egin arteko  
zorionik etzenduan  
(onik izan etzenduan).  
Il zera, maite..., Ill emen baiña  
betiko piztu zeruan;  
orain an zaude... an Goyen eta  
gure biotzen barruan".

"Olerki au illobi gañeko atxurdiñean idatzi bear da".

Beste olerkia, au ere Arrese'k berak, arkatzez gaiñera, idatzia, ez dakit nundik eta nola iritxi yatan. Entzun bere doña:

"Gurasoeri"  
—"Otoitza"

"Orain umezurtz..., negar ta negar  
ler-zori gaude bakartadean;

gero... Yainkoak poztu gaitzala  
betiko zuen aldamenean!

Seme-alabak"

"Otoitz au adiskide baten aginduaz, bere gurasoen illobi gañean ipintzeko egiña da".

Ez dakit noizkoa izan daitekean olerki ori. Boligarafoak asmatuak izan baiño leenagokoa eskierki, esan dodan bezala, arkatzez idatzi bait eban bere eskuz Arrese'k nik gordetzen dodan ingia.

Badau Arrese'k beste olerkitxo bat ere seguruaski sekulan argitaratua izan ez dana. Tolosa'ko sortaldean dagoan Uzturre mendiko gurutzeari egiña Arzurian idatzia zegoan an, Franko'ren Iudi-salbatzailleek mailluka apurtu eben arte. An dago berriro gaur, ostera artzurian idatzia:

"Mendi-gañean beso-zabalik  
Zauden Gurutze laztana:  
Otoi egiñaz muiñ-eman-zale  
Apalki nator zugana".

Apalki joan zan azkenean Arrese'tar Emeter maitagarria, zeruan ziur beso-zabalik zai eban Gurutzetua-rengana. Goian bego.

LATIEGI'TAR BIXENTE

## EUSKERA ABERASTU ESAERA ZARRAK "Auspoa"-tik artuak

Adar igerrak guztiok ditugu. (Ez dago inor akatsik gabe).  
Adiskidetuko da, gatza loratu orduko. (Laster).  
Ardaua eta adiskidea, zarrago eta ohea.  
Agindua, emon arte zor. (Agindutakoa bete egin bear da).  
Zerura txua jaurti, zure gaiñera jausi. (Biraolariak bere buruari kalte).  
Aita langillea zuena. (Baina bera alperra).  
Akerrak adarrak okerrak. (Gaiztoa beti gaiztakerian).  
Akerraren adarra baino gogorrago. (Erruki bakoa).  
Akulluak orratzari anaia. (Biak antzekoak).  
Alarguna teillatu bako etxea. (Babesik ez dauka).  
Al dauanak al dauana, munduko legea.  
Alparraren Iloa, geroa. (Alperrak beti arazoak geroko ixten).  
Alperra beti nekatua. (Lan egiteko iñoz gogorik ez).  
Amaika, amaika modutako bagara mundu onetan. (Eretxi askotako).  
Amesetan jausten danak, ez dau azurrik austen. (Amea amesa da).  
Galtzak bete lan nago. (Lanez gaiñezka nago).  
An ere izango da galtzak bete ipurdi. (Danentzako lana).

Agotik igarri, biotzak Oze egarri.  
Apaingarri ederrak jam arren, astoa beti asto.  
Abadea eta lurra emon barik ez dira engaiñatzen.  
Arbola, Iurraren jantzia.  
Ardiaren utsak, pagau bildotsak.  
Ardi galdua aurkitu daiteke, aldi galdua ez.  
Aretxaren zuztarretik pagorik ez.  
Arraina eta barritua, agotik galtzen dira.  
Arrantza gure astoak, erantzun auzokoak.  
Arrazoi txikiago, orroak andiago.  
Arriaz burua jo, naiz buruaz arria, beti **buruan zauria**.  
Arriaz pitxarra jo, edo pitxarraz arria, **bardin**.  
Arrautze bat gitxi, bi ondo, iru naiko, lau geiegi.  
Artorik merezi ez dauan amaikak, **ogia jaten dabe**.  
Artzainak asarratu, gaitaiak merkatu.

GOIKOETXEA IÑAKI

## PILATO-ALARGUNAREN EZKONTZA

Andra Josepak Oto'ri:

—Jesus, Jesus, emen entzun bear diranak...!

—Zer da ori?

—Jesus Madalena'kin ezkondu zala ez daust ba aldameneko Jerontxiak esan...!

—Ori Beizama'ko sakristauaren kontua lez izango da.

—Zer kontu?

—Ara, andratxo, Beizama'ko sakristaua musulari oso ona zan; baita bertsolaria be. Irudimen aundiko gizona.

—Eta, zer gertatu jakon Beizama'ko sakristauari?

—Bazkalondoan, musean egin ondoren, Bezpera eta Errosario santura joan bearra izan eban igandero lez.

—Antolamentu ederra, musetik Errosariora...

—Dana dala, bezpera ondoren asi zan erretorea Errosario santuarekin eta bigarren misterioan, sartu da elizan, estu ta larri, Errotatxiki-azpiko mutil nagusia: Jau-na, nere aita oso txarto dago eta joateko bereala, esan eutson ate-ondotik garrasi batean...

—A zer formalidade eskasa, orrela elizan garrasika asteko!

—Jatsi zan abadea pulputotik eta sakristauari agindu eutson bera etorri arte segitzeko errosarioari. Zaldia kortatik atera eta tximistak artuta lez abiatu zan erretorea gaisoarengana. Gauzak uste baiño larriago izan eta erretore jauna luzatu egin zan...

—Eta, bitarte orretan sakristauak musari eldu eutson ala bersotan asi...?

—Amabost misterioak amaitu ebazan eta, bersolari ona izanik, irudimenik falta ez, bere aretan misterioak asmatzen jarraitu eban.

—Asmako zituan asmatzekoak...!

—Erretorea elizan sartu zanean orduantxe asi eban ogeita amairugarren misterioa Pilato'ren alarguna Nikodemus'ekin ezkondu zaneakoa...

—Ez zeukan irudimen gitxi...!

—Zure lagun Jerontxiak aña ez...

### ERDERAZ IKASTEN

Oto eta Pototo famili *onekoak* ziran Euskerari buruz. Diruari buruz, barriz, Pototo zan aundiki izandakoa; Oto, ordea, arlotea jaiotzatik eta famili eskasekoa, ez jan eta ez lan; bizi al zan moduan...

Euskaldunak biak.

Jatorri jatorrikoak.

Euskalerrria sei eskualdetan banatzen danez, esi laburra dau munduan eta or zear ibilteko beste izkera bat bear ebela, erabazi eta Gaztelerea ikasiko eben.

Opor-aldiak ziran eta egoaldera jo eben.

Despeñaperro'tik beera abiatu ziranean, orduantxe gogoratu ziran, Kanpaindi'ko Praisku lazkaotarra ortik ibilli zala soldadu. Arek bai erdera ikasi ebala, arek... Bere etxe Kanpaindi'ra idatzi eban gurasoeiri adierazteko zer gauza arrigarriak ikusi ebazan egoaldeko erri nagusi areitako batean. Onelan iñoan:

"He visto kales luzez-luzez Urbaundi-mendi bezelakoxes; txerris beltzaz-beltzaz y txerrizaiñes con sombrero".

Orra zertzuk arritu eben Lazkao'ko baserritarra.

Orreik gogoratzen egozala, ara non alkomokedi batean txarri baltza eta txarri-zaiñak kapelakin. Oneik dozak Kanpaindi'ko Praiskuk ikusiak. Arek ainbeste erdera ikasi ba eban lurralde onetan, geuk be aprobetxau egin bearko dogu. Pentsatu eta egin: doscaballosa gelditu eta eurgana abiatu ziran buruko kezkek arintzearren, ez ekielako zer aide egoan *estrujar* eta *escurrir* aditzen artean.

Kapeladun txerrizaiñak muki-zapi bat artu, uretan buzti eta eskuetan estutu ondoren:

—Esto es estrujar.

Ondoren bere esku zabalakin bere burua joaz:

—Y escurrir se escurre con esto.

ARRINDA'TAR ANES

## URTE BARRIA - ARPIDETZA-SARI BARRIA

1988 URTERAKO ARPIDETZA-SARIA

1.000 PEZETA IZANGO DA.

GURE IRAKURLEAK GOGO ONEZ ARTUKO

DABELA USTE DOGU GORAKADA AU ETA

BIOTZEZ ESKERTZEN DAUTSEGU

EUSKERA ZALEAK

## JUANTXO-TXIKI BIOTZ-ZURI

Umearen biotza paper zuri baten antzekoa da.

Paper zuri orretan nai dozuzanak idaztea zure eskuetan dago.

Onak naiz txarrak.

Zuzenak naiz okerrak.

Zuzen idaztea komeni; baiña, zeuk zeure etxean zuzen idazten ez dozuzanak, auzoko Urliak idatziko dauz oker zeure Juantxo-txikiren biotzean.

\* \* \*

**Ez lo egin** Ez egon alperkeriz, eskua eskugañean tolestuta, ezer egin barik.

Zeuk idatzi naiz ez, etorriko da besteren bat bere lerroak egitera biotz garbi orretan. Badira gurasoak idazte oneri buruzko ardurarik sekulan izan ez dabenak.

Jaten eta edaten emongo dautsoe.

Jantzi be bai.

Ikastolak eta maixuak billatuko dautsoez, zorionez.

Baiña, Juantxo-txikiren biotzean euren eskuz Ierro zuzenak idazten ez dira asko nekatuko. Lan ori besteez egin dagiela.

\* \* \*

**Gurasoen eskuetan** dago Juantxo-txikiren biotza. Gerturago ez dau iñork izango; egokiago be ez. Biotz orretan sekulan galduko ez diran lerroak zeurok markatu bearko dozuez.

Zorionez edo zoritxarrez, arrasto orreik markatzen dozuez, umea jaio aurretik, zeuok oartu barik. Zure bizimodua zelakoa, alakoa arrastoa.

Onak naiz txarrak.

Zuzenak naiz okerrak.

Begiratu bat emon zuen bizikerari. Ezkon-aurreko bizikerarekin batera asten zaree Juantxo-txikiren biotza markatzen. Titiarekin eta biberoiarekin jarraitzen dozue markatze-lan orretan.

Gurasoak gaizki idatzitako lerroak zuzentzea ez da gauza erreza izaten, zoritxarrez.

\* \* \*

**Onerako naiz txarkerirako** bide asko sortu dira amaren magalean. Ona adibide batzuek, oso nabarmenak: Margarita, bere ama alargunaren besoetan sortu ei jakon onbiderako sena Don Bosco'ri, berak iñoanez. Bada Frantzian Luis Done erregea; bere amaren agotik ikasi ei eban okerbidek aide egiten. Eta abar...

Orreik garau aundiak dira; zeigoak be badira eta orrein barria bakoitzak daukagu, gure gurasoei zor dautseguzanak geure gogoramenean dira-ta...

\* \* \*

**Ez beñ be aspertu** zure Juantxo-txiki orren biotz garbian on-bide guztien lerroak idazten.

Aukera badozu.

Aukera ori ez alperrik galdu.

Zeure seme-alabeen biotzak zeure esku daukazuz argizaria baizen bigun. Gerora gogortuko jatzuz. Orduan ez da ain erraza izango Ierro orreik markatzea.

Garaia dan bitartean onerako diran lerro guztiak markatzen alegindu zaite; gero, negar egitea alperrikako gauza izango da. Zugatz gaztea, biguna dan artean, zuzendu legike; okertuta zar egiten ba'da, ez leuke iñortxok be zuzendu. Lenago ausiko da, zuzendu baiño.

\* \* \*

**Onaren izena** Juantxo-txikiren biotzean idaztean, egizu arpegi alai eta maitekorrekin.

Colón de Larreátegui, 14 - 2. dcha. BILBAO-1

# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarría Aretan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**